

# Gaztelania xede, 2009<sup>1</sup>

IDOIA SANTAMARÍA

## 1. *Sarrera*

2009ko azaroaren 27an eta 28an, «Gaztelania xede» mintegia egin zen Gasteizko Letren Fakultatean, eta literatura-lanez kanpoko gaztelaniarako interpretazioa, itzulpena eta zuzenketa izan genituen hartan hizpide. Hiru irakasle aritu ginen: Jaione Arregi, EHUko interpretazio-praktiken irakasle eta Europar Batasuneko interpretea; Ana Isabel Morales, EHUko itzultzaile eta interpretea, eta Nazio Batuen Erakundeko itzultzailea; eta ni neu, Elhuyarko itzultzaile eta zuzentzailea. Interpretazio-, itzulpen- eta zuzenketa-lanei buruzko ikuspegi orokorra ematen saiatu ginen, betiere gaztelania hartuta xede-hizkuntza gisa.

Mintegi horren harira, ea zerbait idatziko ote nuen galdetu zidan Karlos del Olmok, eta hemen naiz orain, ordenagailu aurrean, zer esan ez dakidala eta neure burua madarikatuz Karlosi baietz esan niolako (edo ez niolako ezetz esan). Baina agindua zor, eta, beraz, mamia (mamuari?) heltzen saiatuko naiz.

Gaztelaniaren inguruan, nire iritzian, badira gure artean bi uste, gutxienez, aski zabalduak. Batetik, gaztelania ondo ez menderatzea euskal jatorrasunaren seinaleztat-edo hartzen duena. Uste horren arabera, gaztelaniaz ondo moldatzeko gai ez izatea ez da arazo. Gehienez ere, lagun arteko iseka eta txantxetarako gaia, besterik ez. Euskaldunok gaztelaniaz zein trakets moldatzen garen gure 'purutasunaren' seinale litzateke, gaur egun horrelako hitzik erabiltzen ez dugun arren ('itsusiegi' litzateke hori; onkeria nagusi gure artean ere). Eta, bestetik, kontrako joera: gaztelania egunero entzuten dugulako, hitz egiten dugulako eta telebista jartzean ulertzeko arazorik ez daukagulako, edozein testu gaztelaniaz jartzeko inolako arazorik ez dagoela uste duena.

---

1. Eskerrik asko Arantzazu Royori eta Patxi Petrirenari artikulu honen zirriborroari egin dizkieten zuzenketaengatik, eta proposamen, iradokizun eta gomendio guztiengatik.

Eta, beraz, euskaraz aurkeztu den doktore-tesi bat gaztelaniara itzuli behar dela? Arazorik ez. Jarri gaztelaniaz (edo) eta kito. Gero komeriak, behin baino gehiagotan, gaztelaniaz dioena ulertzeko: ortografia- eta gramatika-akatsak, fraseologia- eta kolokazio-arazoak eta abar.

Euskararen kasuan, gainera, beste arazo bat ere badugu. Izan ere, euskaraz sortutako testu asko, euskaraz idatzita egon arren, gaztelaniaz daude pentsatuta, gaztelaniatik itzuli behar izan direlako (adibidez, euskal prentsan agertzen diren hainbat berri, berri-agentzietatik itzultzen dira) edo testu jakin bat euskaraz idatzi duenak gaztelaniaz pentsatuz idatzi duelako. Horrelakoetan, gaztelania kaskarreko egituren kalko okerreztan betetzen dira euskarazko ‘jatorrizko’ testuak, eta horrek are gehiago korapilatzen du testu horiek gero (berriz) gaztelaniara itzultzeko lana (prozesu kafkiarra, benetan).

Edonola ere, egoerak egoera, premiazkoa dugu gaztelania ere lantzea, gainerako hizkuntzak bezalaxe, bai gaztelania sorburu-hizkuntza denean testuak dioena behar bezala ulertzeko<sup>2</sup>, eta bai, jakina, gaztelania xede-hizkuntza denean ere, hizkuntza horren arau, baliabide, usadio eta doinua esku artean dugun testuaren mesedetan jartzeko.

## 2. Gatozen orain harira

Lehendabizi, gaztelaniaz maiz egiten ditugun akats gutxi batzuk aipatzen saiatuko naiz, denak edo gehienak iazko *Gaztelania xede* mintegian aipatuak, azaletik bada ere. Ikusiko duzue oso akats arruntak direla aipatzen ditudanak, batere sofistiaziorik gabeak, edozein testu-motatan irakurtzen direnak, itzulpen izan edo ez, nola egunkarietan, eleberrietan, saiakeretan, hala dibulgazio-testuetan edo edozein jakintza-alorretako testu espezializatuetan. Eta horrexegatik aukeratu ditut, hain zabalduak daudenez oharkabeen joaten zaizkigulako, eta, irakurriaren irakurriaz, zuzenak direla pentsa dezakeelako batek baino gehiagok. Aipatuko ditudan adibide gehienak Elhuyarren itzuli edo zuzendutako testuetatik hartuak dira; beste gutxi batzuk, berriz, egunkarrietatik eta beste argitalpen batzuetatik.

Gero, artikuluaeren bigarren zatian, gaztelaniari buruzko zalantzak argitzeko eta informazioa bilatzeko gehien erabiltzen ditudan iturriak aipatuko ditut, oso ezagunak gehienak.

### • Ortografia-aperitifa

Gaztelaniazko testuetan –itzulitakoetan zein jatorriz gaztelaniaz idatzitakoetan– ohikoa da izenordain erakusleak azentu-markarekin ikustea. Aski da gaztelaniaz idatzitako edozein egunkarritako artikulua bat irakurtzea horretaz jabetzeko. Hona adibide bat, *El País* egunkaritik hartua:

2. Gaztelania xede-hizkuntza gisa landuko dugu lerro hauetan, baina sorburu-hizkuntza denean ere ematen dizkigu buruhaus-teak. Batzuetan, jatorriz gaztelaniaz idatzitakoaren kalitatea eskasa delako eta, beraz, zer esan nahi duen asmatzen zaila delako; eta, beste batzuetan –eta hau gutxiagotan aipatzen dugula iruditzen zait– gaztelania jasoan idatzitako testuak behar bezala ulertzeko gai ez garelako.

«En el piso viven al menos tres personas, pero sólo se ha procedido contra María José O. E. Ésta ha contado que alquiló el piso a alguien llamado “Jaime”, de quien supo por un cartel en el que figuraba un número de teléfono móvil». <sup>3</sup>

Susmoa dut eskola-garaitik (nire eskola-garaitik, behinik behin) datorkigun nahasketa dela hori: adjektibo erakusleak, azenturik ez; izenordainak, azentuarekin. Espainiako Akademia-*ren Ortografía de la lengua española* lan arau-emailearen arabera, ordea, erakusleek kasu bakar batean daramate azentua gaztelaniaz:

«Solamente cuando se utilicen como pronombres y exista riesgo de ambigüedad se acentuarán obligatoriamente para evitarla». <sup>4</sup>

Anbiguotasun-arriskua dela eta, honela jarraitzen du RAEren ortografia-liburuko azalpenak:

«Existe este riesgo en la siguiente oración:

*Dijo que ésta mañana vendrá*

*Dijo que esta mañana vendrá*

Con tilde, *ésta* es el sujeto de la proposición subordinada; sin tilde, *esta* determina al nombre *mañana*». <sup>5</sup>

Ildo beretik, RAEren *Diccionario Panhispánico de dudas* (DPD) lan berriagoak –arau-emaile hori ere– ortografiako lanak dioena berresten du:

«Por lo tanto, solo cuando en una oración exista riesgo de ambigüedad porque el demostrativo pueda interpretarse en una u otra de las funciones antes señaladas [*adjektibo edo izenordain gisa, alegia*], el demostrativo llevará obligatoriamente tilde en su uso pronominal». <sup>6</sup>

Beste anbiguotasun-adibide bat ematen du DPDK, goikoaren oso antzekoa:

«Así, en una oración como la del ejemplo siguiente, únicamente la presencia o ausencia de la tilde en el demostrativo permite interpretar correctamente el enunciado: *¿Por qué compraron aquéllos libros usados?* (*aquéllos* es el sujeto de la oración); *¿Por qué compraron aquellos libros usados?* (el sujeto de esta oración no está expreso, y *aquellos* acompaña al sustantivo *libros*)». <sup>7</sup>

3. *El País* egunkaria, 2009/11/20

4. Real Academia Española, *Ortografía de la lengua española*, Espasa, 1999, 49. or. RAEren web-orrian ere kontsultatu daiteke (hala ere, estekak huts egiten du batzuetan): [http://www.rae.es/rae/gestores/ges-pub000015.nsf/\(voanexos\)/arch7E8694F9D6446133C12571640039A189/\\$FILE/Ortografia.pdf](http://www.rae.es/rae/gestores/ges-pub000015.nsf/(voanexos)/arch7E8694F9D6446133C12571640039A189/$FILE/Ortografia.pdf) Bestalde, ortografia-arau berriak prestatzen ari da RAE. Orain arte eman duen informazioaren arabera, aurtan argitaratuko du Salvador Gutiérrez akademikoak zuzendu duen ortografia-lan berria (<http://www.fundeu.es/Noticias.aspx?frmOpcion=NOTICIA&frmFontSize=2&frmIdNoticia=2916>). Ez dakigu, ordea, erakusleen azentuari buruzko nobedaderen bat ekarriko duen lan horrek, baina eztabaidatzen ari direla dirudi (<http://www.justa.com.mx/?p=16841>).

5. Real Academia Española, *Ortografía de la lengua española*, Espasa, 1999, 49. or.

6. Real Academia Española, Asociación de Academias de la Lengua Española, *Diccionario panhispánico de dudas*, Santillana, 2005, 639. or. Eta Interneten: <http://buscon.rae.es/dpdI/SrvltConsulta?lema=tilde>

7. Ídem, 639. or.

Akademiak dioena gorabehera, praktikan oso gutxi dira anbiguotasun-arriskuak, gehien-gehienetan testuinguruak argitzen baitu hori. Akademiak berak emandako goiko adibideetan, perpaus-bikote horiek bakarka hartuta, ukaezina da anbiguotasun-arriskua, baina inork nahastuko lituzke benetan testuinguru erreala batean? Nekez, nik uste.

Beraz –eta egunero irakurtzen ditugun testuak bestela idatzita badaude ere–, erakusleak, ia beti, azenturik gabe idatzi behar dira gaztelaniaz. Izenordain izanik, anbiguotasun-arrisku garbia dagoenean bakarrik jarri behar zaie azentua.

Oso antzekoa da gaztelaniaz *solo* hitzarekin gertatzen dena. Edozein egunkari zabalduz gero, *sólo* ugari ikusiko ditugu –azentu eta guzti, alegia–, nahiz eta, berez, salbuespena izan azentuarekin idatzi beharreko kasua. Berriz ere eskola-garaitik datorkigun gaizki-ulertua da *solo* hitzak ez daramala azenturik adjektiboa denean, baina azentuz idaztekoa dela aditzondoa bada. Ez da egia, ordea, uste hori, oso zabaldua egonagatik. Aditzondoa denean, bai, baina bakar-bakarrik perpaus jakin batean adjektibo nahiz aditzondo gisa interpretatzeko arriskua baldin badago. Horixe diote aipatu berri ditugun iturriek (RAEren 1999ko ortografia-lanak eta DPDk):

«Cuando quien escriba perciba riesgo de ambigüedad, llevará acento ortográfico en su uso adverbial. Ejemplos:

*Pasaré solo este verano aquí* ('en soledad, sin compañía')

*Pasaré sólo este verano aquí* ('solamente, únicamente')».<sup>8</sup>

Beraz, anbiguotasun-auzia hemen ere, lehen aipatu dugun izenordain erakusleen kasua bezalakoxea. Eta lehen esandakoari jarraituz, kasu honetan ere oso gutxi dira testuinguruak argitzen ez dituen anbiguotasunak, eta, beraz, *solo* azentuarekin idatzi beharreko kasuak. Hala, lehen eman dugun *El País* egunkariko adibidean agertzen den *sólo* azentudunak ez du azenturik behar, aditzondoa izan arren ez dagoelako inolako anbiguotasun-arriskurik:

«En el piso viven al menos tres personas, pero **solo** se ha procedido contra María José O. E.».

#### • Lehen platera: lexiko-kontuak

Ortografia-kontuak alde batera utzi, eta aipa ditzagun orain, azaletik bada ere, lexikoarekin lotutako kasu pare bat: bata, *realizar* aditza zernahitarako erabiltzeko dugun joera, eta bestea, orokorragoa baina harekin lotua, lexikoaren pobretasuna eta erregistro-mailen nahasketa, euskaratik gaztelaniara itzultzen ditugun edo zuzenean gaztelaniaz idazten ditugun testu orokorretan.

*Realizar* aditzaren erabilera dela eta, ohikoa da honen antzeko testuak irakurtzea gaztelaniaz:

8. Real Academia Española, *Ortografía de la lengua española*, Espasa, 1999, 50-51. or.

«Por mucho que se *realice* un trabajo de revisión posterior, partir de traducciones automáticas representa un grave riesgo...».

Edo

«Es fundamental saber todo ello, ya que nos ayuda a *realizar* mejor el trabajo desde muchos puntos de vista...».

Hau da, batetik, nominalizaziora jotzen dugu, ekintza zuzenean dagokion aditzaren bidez adierazi orde (esate baterako, lehenengo adibidean, *por mucho que luego se revise el texto...*), eta, bestetik, *realizar* aditza komodin gisa erabiltzen dugu, batzuetan *hacer* arruntegia iruditzen zaigulako, nonbait, eta, beste batzuetan, ez dugulako asmatzen gaztelaniak *hacer / realizar* adierarako kasu bakoitzean dituen ñabardura ezberdineko aditzak erabiltzen: *ejecutar, fabricar, elaborar, acometer, desempeñar...* (hala, bigarren adibidean, agian, egokiago litzateke esatea [...] *ya que nos ayuda a desempeñar mejor nuestro trabajo* edo, laburrago, *ya que nos ayuda a mejorar el trabajo*).

Halaxe dio Fundéu-BBVA<sup>9</sup> erakundeak, gaztelaniazko zalantza linguistikoak argitzeko Interneten duen vademecumean:

«**Realizar**

No se abuse de este verbo comodín.

Es habitual, pero incorrecto, decir que *se realizan visitas* o que *se realiza un viaje*. Las visitas y viajes *se hacen* o, simplemente, *se viaja* o *se visita* algo o a alguien. Las reuniones, conferencias, ruedas de prensa, concursos, elecciones, etc. tampoco *se realizan* sino que *se celebran*.

Recuérdese, además, que el español es rico en verbos de significado semejante a *realizar*, pero de matices distintos –*ejecutar, llevar a cabo, efectuar, desarrollar, fabricar, elaborar, componer, confeccionar, construir, plantear*, etc.–, y que con estos verbos pueden evitarse fácilmente las impropiedades y errores de frases como: «El PP ha decidido *realizar* propuestas», «El jugador que *realizó* las declaraciones», «El presidente *realizó* esta reflexión», «El atleta *realizó* la quinta mejor marca» o «...que *realizaron* la evacuación del herido». Las propuestas, las declaraciones o las reflexiones *se hacen*, las marcas *se consiguen*, los heridos *se evacúan*, etc.»<sup>10</sup>

Lexiko-pobretasunarekin batera, erregistro-mailen nahasketa ere nabarmena da gaztelaniazko testu batzuetan. Har dezagun adibide hau, jatorriz euskaraz idatzitako testu bat gaztelaniara itzuli eta moldatutako testu batetik hartua:

---

9. Garai bateko EFE agenziaren eta BBVAren arteko lankidetzaz hitzarmen baten bidez 2005ean sortutako fundazioa da Fundéu-BBVA. Gaztelania hedabideetan ondo erabiltzeko gomendioak ematen ditu, eta zalantzak argitzeko kontsulta-zerbitzua ere badu: <http://www.fundeu.es/>

10. Gaztelaniazko hitzen arteko konbinazioari eta kolokazioari buruzko lan bikainak dira, besteak beste, honako hauek:

Ignacio BOSQUE, *Redes, Diccionario combinatorio del español contemporáneo*, Ediciones SM, 2004.

Manuel SECO, Olimpia ANDRÉS, Gabino RAMOS, *Diccionario fraseológico documentado del español actual*, Aguilar, 2004.

Leonardo GÓMEZ TORREGO, *Hablar y escribir correctamente*, Arco/Libros, S.L., 2. argitaraldia, 2007.

«En el País Vasco existe una valiosa red de centros tecnológicos, *de acuerdo con la actividad industrial que ha tenido tradicionalmente*. [...] En ocasiones, el *salto* que hay entre dichos centros tecnológicos y el ámbito académico es grande. Entre otros, el objetivo del centro BCAM es cubrir ese *agujero*».

Batetik, gehiegi luzatu da lehenengo perpausa, horretarako beharrik gabe. Bestetik, *salto* eta *agujero* aitzakiarik gabeko hitzak dira gaztelaniaz, noski, baina zentro teknologikoei buruzko dibulgazio-testu batean erregistro-maila egokiagoak lirateke, nik uste, *brecha* eta *hueco*, adibidez:

«En el País Vasco existe una valiosa red de centros tecnológicos, *de acuerdo con su tradición industrial*. En ocasiones, la *brecha* entre dichos centros tecnológicos y el ámbito académico es grande. Entre otros, el objetivo del centro BCAM es cubrir ese *hueco*».

Erregistro-kontuez ari garela, euskarazko zukako tratamendua gaztelaniara itzuli behar dugunean, ez dugu beti asmatzen hori nola egin. Esate baterako, nola itzuli behar dugu gaztelaniara euskaraz zuka egindako elkarrizketa bat? *Tú* ala *usted* idatzi behar da horrelakoetan? Testuinguruaren arabera, noski. Baina batzuetan ahaztu egiten dugu hori, eta beti *tú* erabiltzeko joera dugu, baita gaztelaniak *usted* naturalago erabiliko lukeen erregistroetan ere. Adibidez, hona zentro teknologiko bateko zuzendari izendatu berri bati euskaraz egindako elkarrizketa baten itzulpenean irakurritakoa:

«Zuzendaria: Estará dedicado a la investigación de las matemáticas aplicadas, una especialidad surgida tras la Segunda Guerra Mundial, cuando empezó a desarrollarse la computación, que ha ido cobrando cada vez mayor relevancia gracias, por ejemplo, a los logros conseguidos en la aviación, en la carrera espacial o en las telecomunicaciones.

Kazetaria: Es un nuevo reto para ti. ¿Cuál es tu tarea?».

Kazetariak elkarrizketatua laguna bazuen ere, paperezko argitalpen batean edo sarean argitaratzekoa den zientzia-dibulgazioko testu batean, naturalagoa du gaztelaniak *usted* tratamendua, oraingoz behintzat (badirudi *tú* tratamendua asko ari dela zabaltzen Espainiako gaztelanian; ez hainbeste, ordea, Erdialdeko eta Hego Amerikakoan).

- Bigarren platera: gerundioa eta *C'est pour ça qu'on entend les accordéons*<sup>11</sup>

Atal honetan, bi gai aipatuko ditugu, biak ala biak iazko mintegiko testuetan azaldu zirenak: gaztelaniazko gerundioaren erabilera oker batzuk, batetik, eta galizismotzat jotzen diren bi joskera ezagun, bestetik: *Es por ello que...* komodina, eta *izena + a + infinitiboa* egitura (*texto a traducir, inscripción a grabar, cuestiones a resolver, documentos a presentar...*).

Askotan irakurtzen ditugu gaztelaniaz honelakoak:

11. Édith Piaf kantari frantsesaren *C'est pour ça* kantatik hartutako esaldi bat da hori.

«Un recién licenciado de Dartmouth es el autor principal de un trabajo de investigación *concluyendo* que el impacto de los parásitos se extiende más allá de sus huéspedes».

Edo

«Zarpó ayer un barco *llevando* medicamentos al lugar del desastre».

Edo beste hau:

«Hubo un accidente en la M-30, *muriendo* todos los ocupantes del vehículo».

Hiru kasu horietan, gerundioaren erabilera ez da egokia, eta zuzenagoak lirateke beste formulazio hauek (zuzenketa-aukera gehiago daude, noski):

«Un recién licenciado de Dartmouth es el autor principal de un trabajo de investigación *que concluye* que el impacto de los parásitos se extiende más allá de sus huéspedes».

«Zarpó ayer un barco *que llevaba* medicamentos al lugar del desastre».

«Hubo un accidente en la M-30, *como consecuencia del cual* murieron todos los ocupantes del vehículo».

Hau da, gaztelaniaz ez da gerundioa erabiltzea komeni adjektibo murrizgarri baten edo perpaus erlatibo murrizgarri baten funtzioan –(1) eta (2)–, ez eta gerundioak adierazten duen ekinntza aditz nagusiarena baina beranduago gertatzen denean ere (3)<sup>12</sup>.

Orain, gaztelaniara frantsesetik heldu zaizkigun eta hedabideetan askotan entzun eta irakurtzen diren bi egitura aipatuko ditugu. Adibide batekin hasiko gara:

«A menudo los textos sufren cambios en el proceso de edición. Es por ello que conviene informar al traductor de las posibles modificaciones que puedan sufrir los textos».

Frantsesezko *c'est pour ça que* esapidea dago gaztelaniazko egitura horren atzean. Eta okertzat –galizismotzat– jotzen da hori gaztelania idatzian. Oso erraza da horrelakoak zuzentzea:

«A menudo los textos sufren cambios en el proceso de edición. *Por ello* [edo *por eso*] conviene informar al traductor de las posibles modificaciones que puedan sufrir los textos».

Edo, inoiz, egitura luzea nahitaezkoa bada, enfasia ez galtzeko:

---

12. Gaztelaniazko gerundioaren erabilerari buruz, ikus:

Leonardo GÓMEZ TORREGO, *Hablar y escribir correctamente*, Arcos Libros, S.L. 2. argitaraldia, 2007, 500. or.

Fundación del español urgente, *Manual de español urgente*, Cátedra, 18. argitaraldia, 2008, 74-77. or.

Gonzalo MARTÍN VIVALDI, *Curso de redacción*, Paraninfo, 33. argitaraldia, 2008, 61. or.

Azalpen xeheagoa, hemen:

- Real Academia Española (zuzendaritza: Ignacio BOSQUE, Violeta DEMONTE), *Gramática descriptiva de la lengua española*, Espasa Calpe, 1999, II. liburukia, 3.452. or.
- Real Academia Española, Asociación de Academias de la Lengua Española, *Nueva gramática de la lengua española*, Espasa Libros S.L.U., 2009, 2. liburukia, 2.061. or.

«A menudo los textos sufren cambios en el proceso de edición. *Es por eso por lo que* [edo *por eso es por lo que*] conviene informar al traductor de las posibles modificaciones que puedan sufrir los textos»<sup>13</sup>.

Edo bi perpausak lotu nahi izanez gero:

«A menudo los textos sufren cambios en el proceso de edición, *por lo que* conviene informar al traductor...».

Bestalde, *izena + a + infinitiboa* (edo *izena + a + izena*) egitura ere oso zabaldua dago gaztelaniaz, hizkera espezializatuetan batik bat (administrazioan, ekonomian, kazetaritzan...). Esate baterako:

«La ausencia de un fichero electrónico, es decir, entregar *el texto a traducir* solo en papel, impide al traductor...».

«No es lo mismo traducir unas instrucciones de utilización de una máquina, un acta, *una inscripción a grabar* en un edificio público, un libro de texto...».

DPDn jasotakoaren arabera<sup>14</sup>, frantsesetiko kalko horiek XIX. mendearen erdialdera hasi ziren sartzen gaztelanian, eta ez dira onargarriak, nahiz eta ekonomian, adibidez, esapide batzuk aski errotuta dauden dagoeneko (*cantidad a ingresar* edo *cantidad a deducir*, esate baterako). Baina salbuespenak salbuespen, goiko perpausak txukunago leudeke honela gaztelaniaz (ez dira aukera bakarrak, hala ere):

«La ausencia de un fichero electrónico, es decir, entregar *el texto que debe traducirse* solo en papel, impide al traductor...».

«No es lo mismo traducir unas instrucciones de utilización de una máquina, un acta, una inscripción *que debe grabarse en / destinada a* un edificio público, un libro de texto...».

Aurrekoarekin lotutako *izena + a + izena* egitura ere oso ezaguna dugu (\* *barco a vapor*, \* *cocina a gas*). Horrelako esapide batzuk Espainiako gaztelanian oso zabaldua dauden arren (*olla a presión* eta *avión a reacción* aipatzen ditu DPDk zabalduenen artean), Espainiako Akademiak, horrelakoetan, ahal dela, *a*-ren ordeaz, *de* preposizioa erabiltzea gomendatzen du (*cocina de leña*, *barco de vela*), hori delako gaztelaniaz tradizio handieneko forma eta gehien erabiltzen dena Erdialdeko eta Hego Amerika osoan<sup>15</sup>. Komeni da, beraz, gomendio horiek aintzat hartzea.

13. Adibide honetan, hala ere, nahikoa litzateke konponbide laburra: «*Por ello* conviene informar...» edo «...*por lo que* conviene informar».

14. DPD, 3-4. or. Eta Inteneten: <http://buscon.rae.es/dpdI/SrvltConsulta?lema=a>

15. Ídem.



• Postrea: *deber* / *deber de* aditz-perifrasia

*Deber* aditza laguntzaile gisa erabiltzen da gaztelaniaz infinitiboarekin egiten diren perifrasiatan, *de* preposizioarekin batzuetan (*Deben de ser más de las once*), eta preposiziorik gabe beste batzuetan (*Debo devolver el libro esta tarde*). Egitura ezagun horiek, ordea, nahasian erabiltzen dira maiz.

Eskola-garaiko *Lengua española y Literatura* irakasgaitik gogoratzen dudanaren arabera –horrelaxe idatzita, maiuskula eta guzti–, honela azaltzen ziguten orduan bi egitura horien arteko aldea: *deber* bakarrik erabilita, preposiziorik gabe, eginbeharra adierazten du esaldiak, eta *de* preposizioarekin erabiliz gero, ustea, aierua adierazten du. Beraz, goiko *Debo devolver el libro esta tarde* perpausak esan nahiko luke liburua gaur arratsaldean itzuli behar dudala nahitaez. Aldiz, *Deben de ser más de las once* perpausak adieraziko luke dagoeneko hamaikak jota izango direla uste dudala nik, baina ez nagoela erabat ziur, une horretan ez dudalako hori egiaztatzeko modurik. Honaino eskola-garaiko azalpena.

Baina hori baino konplexuagoa da kontua, nonbait. RAEren *Gramática descriptiva de la Lengua Española*ren arabera, beti izan da bi egitura horiek nahasteko joera gaztelaniaz, eta nahasketa horretan <*deber* + infinitivo> egitura gailenduz omen doa, eta, beraz, preposiziorik gabekoa erabiltzeko joera omen dago eginbeharra nahiz ustea adierazteko, *deber de* egitura alde batera utzita:

«La perífrasis <*deber* + infinitivo>, con su significado de «obligación» y <*deber de* + infinitivo> con su significado de «probabilidad», se han identificado con frecuencia en el pasado y se siguen identificando en la actualidad. La identificación es hoy más frecuente en la lengua coloquial que en la escrita culta, y es más normal a favor de <*deber* + infinitivo> que a favor de <*deber de* + infinitivo>. En efecto, cuando se oye esta última con valor obligatorio parece que puede deberse a un fenómeno de ultracorrección o a un fenómeno de énfasis».<sup>16</sup>

Fundéuk ere ildo beretik jotzen du, baina zirt edo zart eginez, arinegi, agian:

**«*Deber* + infinitivo expresa obligación o suposición y *deber de* + infinitivo solo indica suposición.**

La perífrasis *deber* + infinitivo –sin la preposición *de*– puede expresar obligación («*Debo* acabar el artículo esta tarde») y suposición («*Debe* haber acabado el artículo ya»).

La perífrasis *deber de* + infinitivo –con la preposición *de*– solamente denota suposición: «*Debe de* hacer ya más de veinte años» y nunca obligación».<sup>17</sup>

16. Real Academia Española (zuzendaritza: Ignacio BOSQUE, Violeta DEMONTE), *Gramática descriptiva de la lengua española*, Espasa Calpe, 1999, 2. liburukia, 3.348-3.352. or.

17. Ikus <http://www.fundeu.es/> helbideko *Vademécum* – *Diccionario de dudas del español* ataleko <*deber* + infinitivo/<*deber de* + infinitivo> sarrera. Hala ere, ez datoz bat Fundéuk Interneten dioena eta berak aspaldi argitaratu zuen *Manual de español urgente* liburua (liburu hori 1985ean argitaratu zen lehen aldiz, baina askotan berrargitaratu dute, eguneratuta; 18. argitaraldia kontsultatu dut nik, 2008koa). Liburu horrek diotenaren arabera, <*deber* + infinitivo> egiturak eginbeharra adierazten du, eta <*deber de* + infinitivo> egiturak eginbeharra zein ustea adierazteko balio du (ikus Fundación del español urgente, *Manual de*

Bestalde, labetik atera berria den RAEren *Nueva gramática de la lengua española* pixka bat gehiago zehazten du bi perifrasi horien erabilera<sup>18</sup>. Aipatu berri dugun beste gramatikaren eta Fundéuren Interneteko vademecumak dioenaren bide berari heltzen dio, baina zuhurtziaz-edo, ez du araurik ematen; gomendioa, gehienez ere:

«Así, *Debes beber mucha agua* expresa, en principio, un consejo o una obligación del destinatario, mientras que *Debes de beber mucha agua* expresa una conjetura del hablante, es decir, la manifestación de una probabilidad inferida.

[...]

Existen, no obstante, numerosas excepciones a esta regla general, como se explicará en los apartados siguientes.

Los textos ponen de manifiesto que el contraste descrito en el apartado anterior se desdibuja muy a menudo, sobre todo en el presente de indicativo. <*Deber* + infinitivo> se documenta con mucha frecuencia para expresar probabilidad [...]. Los textos que registran estos hechos pertenecen tanto al español americano como al europeo, aunque proporcionalmente son algo más numerosos en el primero que en el segundo. Se trata, además, de un uso muy extendido que se documenta en escritores de prestigio:

[...]

Son igualmente numerosos, sobre todo en el español americano, los usos de <*deber de* + infinitivo> para expresar obligación. Este empleo de la perífrasis, que ya conoció la lengua clásica, es frecuente sobre todo en México y Centroamérica [...].»

Eta orain, erabileraren berri eman ondoren, RAEren gomendioa:

«Por su gran extensión en el mundo hispanohablante en todos los niveles de la lengua, no puede considerarse incorrecto el uso de <*deber* + infinitivo> con el sentido de conjetura o probabilidad inferida. Para expresar obligación se recomienda la variante sin preposición».

Beraz, laburbilduz –postrea pisuegi atera zait, ezta?–, usadio zaharraren arabera, eginbeharra adierazteko, *de* preposiziorik gabe, eta ustea adierazteko, berriz, *de* preposizioarekin. Baina bi egitura horien erabilera oso nahasia da, eta Spainian, batez ere, oso zabaldua dago *de* preposiziorik gabeko egitura eginbeharra nahiz ustea erabiltzeko. RAEk ez du erabilera hori gaitzes-ten<sup>19</sup>.

*español urgente*, Cátedra, 18. argitaraldia, 2008, 223. or.). Bestalde, RAEren DPDk ere erabilera-eskema hori bera berresten du (ikus DPD, 207. or. Edo Interneten: <http://buscon.rae.es/dpdI/SrvltConsulta?lema=deber>).

18. Real Academia Española, Asociación de Academias de la Lengua Española, *Nueva gramática de la lengua española*, Espasa Libros S.L.U., 2009, 2. liburukia, 2.143-2.144. or.

19. Hala ere, inkoherentzia-arazo bat du hemen RAEk, *deber* / *deber de* perifrasiaren erabilera deskribatzen dutenean ez baitatzen bat RAEren DPD eta gramatika berria (ikus 17. oin-oharra). Bi lan horiek arau-emaileak direnez, ez dakigu bietako zeini jarraitu behar zaion biak bat ez datozenean.

- Kafea: bibliografiari buruzko aipamen batzuk

Gaztelaniaren inguruko bibliografia –paperean zein Interneten– oso zabala eta askotarikoa denez, aipamen gutxi batzuk baino ez ditut egingo hemen.

Lehen-lehenik, lan arau-emaileak eta deskriptiboak bereiztea komeni da. RAEk argitaratzen dituenak (hiztegia, gramatika, ortografia, DPD) arau-emaileak dira, hau da, RAEren argitalpen horiek gaztelaniazko arau jasoaren berri ematen dute. Gainerako lanak deskriptiboak dira, neu-ri batean edo bestean. Egoera zein den azaltzen dute, baina ez dute indar arau-mailerik.

Liburuei dagokienez, orain arteko oin-oharretan aipatu ditugu arau-emaileen arteko garrantzitsuenak:

- Real Academia Española, *Diccionario de la lengua española*<sup>20</sup>, 22. argitaraldia, Espasa-Calpe, 2001.

Kontuan izan hiztegi horren Interneteko bertsioa erabiltzea komeni dela, hori eguneratua baitago beti.

- Real Academia Española, Asociación de Academias de la Lengua Española, *Diccionario panhispánico de dudas*<sup>21</sup>, Santillana, 2005.

Interneten ere kontsultatu daiteke.

- Real Academia Española, *Ortografía de la lengua española*, Espasa, 1999.

RAEren web-orrian ere kontsultatu daiteke (ikus 4. oin-oharra). Egunkarietako informazioaren arabera, 2010eko udazkenean argitaratuko du RAEk ortografia arau-emaile berria.

- Real Academia Española (zuzendaritza: BOSQUE, Ignacio; DEMONTE, Violeta), *Gramática descriptiva de la lengua española*, Espasa Calpe, 1999, hiru liburuki.

- Real Academia Española, Asociación de Academias de la Lengua Española, *Nueva gramática de la lengua española*, Espasa Libros S.L.U., 2009, bi liburuki.

Bestalde, gaztelaniaren erabilerari buruzko lan bikain ezagunak dira beste hauek:

- MOLINER, María, *Diccionario de uso del español*, Gredos, 1966-1967; 2. argitaraldia, 1998; 3. argitaraldia, 2008.

- SECO, Manuel; ANDRÉS, Olimpia; RAMOS, Gabino: *Diccionario del español actual*, Aguilar, 1999.

- SECO, Manuel; ANDRÉS, Olimpia; RAMOS, Gabino, *Diccionario fraseológico documentado del español actual*, Aguilar, 2004.

- BOSQUE, Ignacio, Redes, *Diccionario combinatorio del español contemporáneo*, Ediciones SM, 2004.

---

20. <http://www.rae.es/rae.html>

21. <http://www.rae.es/rae.html>

- GÓMEZ TORREGO, Leonardo, *Hablar y escribir correctamente*, Arco/Libros, S.L., 2. argitaraldia, 2007.
- CASARES, Julio, *Diccionario ideológico de la lengua española*, Editorial Gustavo Gili, 1984.

Erdialdeko eta Hego Amerikako gaztelaniari dagokionez, bi dira amerikanismoak ongien jasotzen dituzten hiztegi orokorrak:

- VOX, *Diccionario de uso del español de América y España*, SPES, 2002.  
Nik dakidala, VOX hiztegiak ez du bertsio elektronikorik.
- CLAVE<sup>22</sup>, *Diccionario de uso del español actual*, S.M., 2007.  
Interneten ere kontsultatu daiteke.

Zalantzak argitzeko, berriz, RAEren *Diccionario panhispánico de dudas* lanaz gain, oso ego-kiak dira:

- SECO, Manuel, *Diccionario de dudas y dificultades de la lengua española*, Espasa Calpe, 9. argitaraldia, 1990.  
Oso ona da, baina zaharkitu samar gelditu da zenbait kontutan Akademiaren DPDren aldean.
- Fundación del español urgente, *Manual de español urgente*, Cátedra, 18. argitaraldia, 2008.

Gainera, Fundéuk baliabide ugari ditu Interneten, doan erabiltzeko moduan denak. Baliabide horien artean, zalantza ugari argitzen ditu web-orri horretako vademecumak. Horretaz gain, kontsultak egiteko posta-zerbitzu bat ere badu (consultas@fundeu.es helbidera idatzi behar da), eta azkar erantzuten dute, RAEren kontsulta-zerbitzuak baino azkarrago, gehienetan. Web-orri horretan bertan, orain arte erantzun dituzten kontsulta guztiak ere irakurtzeko moduan daude, *Consultas* botoia sakatuta. Bestalde, egun biz behin-edo, gomendioak argitaratzen ditu Fundéuk Interneten, eta hedabideetan argitaratu diren erabilera okerrak zuzentzeko argibideak ematen ditu gomendio horietan (ikusteko, sakatu *Recomendaciones* botoia). Nahi izanez gero, gomendio horiek posta elektronikoz jasotzeko aukera ere badago; nahikoa da izena ematea (doan da). Ohar zehatz eta laburrak dira, 8-10 lerro inguruak, gehienez; oso praktikoak, nire iritzirako<sup>23</sup>. Azkenik, *Donde dice* aldizkaria ere kontsultatu daiteke web-orrian, eta pdf for-

22. <http://clave.librosvivos.net/>

23. Ikus, adibidez *pederasta* eta *pedófilo* terminoen arteko aldeari buruz idatzitako gomendioa (2010eko martxoaren 29koa):<http://www.fundeu.es/Recomendaciones.aspx?frmOpcion=RECOMENDACION&frmFontSize=2&frmIdRecomendacion=605>, edo ekonomian maiz erabiltzen diren anglizismoetako bati buruz diotena (martxoaren 12koa): <http://www.fundeu.es/Recomendaciones.aspx?frmOpcion=RECOMENDACION&frmFontSize=2&frmIdRecomendacion=594>

matuan deskargatu. Esate baterako, aurtengo lehen hiruhilekoko zenbakia (17. zk.)<sup>24</sup> itzulpengintzari buruzko monografiko bat da, eta, duela urtebete, zuzenketari buruzko beste monografiko bat (14. zk.)<sup>25</sup> argitaratu zuten.

- MARTÍNEZ DE SOUSA, José, *Diccionario de usos y dudas del español actual*, DUDEA, 4. argitaraldia, Trea, 2008.

Martínez de Sousaren liburuek aipamen berezia merezi dute. Bere burua «bibliólogo, ortotipógrafo y lexicógrafo» gisa definitzen duen eta tarteka RAEren inkohherentziek sutan jartzen duten aditu honek lan ugari ditu argitaratuak, oso onak denak. Aipatu berri dugunaz gain, besteak beste, hauek:

- MARTÍNEZ DE SOUSA, José, *Ortografía y ortotipografía del español actual*, Trea, 2. argitaraldia, 2008.
- MARTÍNEZ DE SOUSA, José, *Diccionario de uso de las mayúsculas y minúsculas*, Trea, 2007; 2. argitaraldia, 2010.
- MARTÍNEZ DE SOUSA, José, *Manual de estilo de la lengua española*, MELE 3, Trea, 3. argitaraldia, 2007.

Gaztelaniaz ari garela, Cervantes institutuak<sup>26</sup> gida labur eta erabilgarriak argitaratzen ditu aldian behin. Hiru argitaratu ditu orain arte:

- PAVÓN LUCERO, María Victoria, *Gramática práctica del español*, Espasa, 2007.
- GÓMEZ TORREGO, Leonardo, *Ortografía práctica del español*, Espasa, 2009.
- PAREDES GARCÍA, Florentino, *Guía práctica del español correcto*, Espasa, 2009.

Zuzen-zuzeneko kontsulta-materiala ez bada ere, Cervantes institutuko telebista-kanalean<sup>27</sup> gaztelaniarekin lotutako hitzaldi interesgarri ugari entzun eta ikus daitezke; besteak beste, Leonardo Gómez Torrego, Salvador Gutiérrez eta Manuel Alvar irakasleek 2009ko *La lengua española: usos y desarrollos* hitzaldi-zikloan eman zituztenak<sup>28</sup>.

---

24. <http://www.fundeu.es/IMAGENES/revistaPDF/634012188022656250.pdf>

25. <http://www.fundeu.es/IMAGENES/revistaPDF/633677068094375000.pdf>

26. <http://www.cervantes.es/>

27. [http://www.cervantestv.es/lengua\\_ensenanza/default.htm](http://www.cervantestv.es/lengua_ensenanza/default.htm)

28. Halaber, eta gaztelaniaren erabilerarekin zuzenean lotuta ez egon arren inork entzun nahi badu, hizkuntza 'sateliteei' buruzko hitzaldi polita eman zuen Bernardo Atxagak Cervantes institutuan 2010eko martxoaren 9an, *El espacio ibérico de las lenguas* hitzaldi-zikloan: [http://www.cervantestv.es/lengua\\_ensenanza/video\\_conferencia\\_bernardo\\_atxaga.htm](http://www.cervantestv.es/lengua_ensenanza/video_conferencia_bernardo_atxaga.htm)

Estilo-liburuen artean, merezi du Europako Batasuneko erakundeen edizio-, itzulpen- eta zuzenketa-lanetarako estilo-liburua aitatzea, Interneten etengabe eguneratzen dutena: *Libro de estilo interinstitucional*<sup>29</sup>. Europako Batasuneko edizio-lan guztietan bete beharreko arauetz gain, gaztelaniazko testuei dagozkien berariazko arauak ere ematen ditu. Gainera, eranskin praktikoko ugari ditu: laburdurak eta ikurrak, siglak eta akronimoak, mundu osoko estatuen izen ofizialak haien jentilizio eta moneta-izenekin, letra etzanaren erabilera, maiuskulak eta minuskulak noiz, eta abar. Orobat, Europako Batzordeko itzulpen-zuzendaritzak ere itzulpenetarako gidaliburu<sup>30</sup> osatu bat du sarean. Eta Europako Parlamentuaren buletin terminologikokoek<sup>31</sup> ere informazio interesgarri ugari dute. Europako Batasuneko argitalpenei buruz ari garela, ez ahaztu *Punto y Coma*<sup>32</sup> aldizkaria, itzulpenarekin lotutako ezin konta ahala gai planteatzeaz gain, gaztelania lantzeko ikastaro, batzar, mintegi eta jardunaldi askoren berri ematen baitu beti.

IATE<sup>33</sup> eta UNTERM<sup>34</sup> datu-base ezagunak ere gogoan hartzea komeni da, Europako Batasuneko eta Nazio Batuetako hizkuntza ofizial guztiek termino jakin baterako aukeratu dituzten ordainen berri ematen baitute (zuhurtziaz erabiltzea komeni da hala ere, batzuetan akatsak eta badaezpadako ordainak ematen dituzte eta). Datu-baseen artean, Quebeceko GDT<sup>35</sup> (*Grand dictionnaire terminologique*) ezagunaz gain, ezin ahaztu duela gutxi arte ordainpekoa zen arren gaur egun librea den TERMIUM<sup>36</sup>, Kanadako gobernuaren datu-base terminologiko eta linguistikoa. Datu-base hori hirueleduna da (ingeleza, frantsesa eta gaztelania), nahiz eta askoz gehiago diren frantsesez eta ingelesez dauden terminoak gaztelaniaz daudenak baino. Hala ere, oso gomendagarria da, eta, gainera, *Caleidoscopio del español*<sup>37</sup> aukeran gaztelaniaren erabilera-ekin lotutako artikulu interesgarri asko daude irakurgai.

Egunkarietako estilo-liburuak ere oso lagungarriak dira askotan, gramatika-liburuek jasozten ez dituzten erabilerei buruzko ohar praktikoko ugari ematen dituztelako. Nik ezagutzen ditudanen artean, hauek erabiltzen ditut gehien:

- CAMPS, Magí (koordinatzailea), *La Vanguardia. Libro de redacción*, Ariel, 2004
- *Libro de estilo de El País*<sup>38</sup>, Aguilar, 2002.

(Estilo-liburu horren Interneteko bertsioa ez da batere eroso, baina bilaketak egiteko balio dezake).

29. <http://www.publications.europa.eu/code/es/es-000300.htm>

30. [http://ec.europa.eu/translation/language\\_aids/freelance/documents/spanish/dgt\\_spanish\\_styleguide\\_es.pdf](http://ec.europa.eu/translation/language_aids/freelance/documents/spanish/dgt_spanish_styleguide_es.pdf)

31. [http://www.europarl.europa.eu/transl\\_es/plataforma/pagina/celter/bolter.htm](http://www.europarl.europa.eu/transl_es/plataforma/pagina/celter/bolter.htm)

32. <http://ec.europa.eu/translation/bulletins/puntoycoma/numeros.html>

33. <http://iate.europa.eu/iatediff/SearchByQueryLoad.do?method=load>

34. <http://unterm.un.org/>

35. [http://www.granddictionnaire.com/BTML/FRA/r\\_Motclef/index800\\_1.asp](http://www.granddictionnaire.com/BTML/FRA/r_Motclef/index800_1.asp)

36. <http://www.termiumplus.gc.ca/site/termium.php?lang=spa&cont=001>

37. <http://www.termium.com/tpv2guides/guides/caleid/index-spa.html?lang=spa>

38. [http://estudiantes.elpais.com/libroestilo/indice\\_estilos.htm](http://estudiantes.elpais.com/libroestilo/indice_estilos.htm)

– MARTÍNEZ DE SOUSA, José, *Libro de estilo Vocento*, Trea, 2003

Bestalde, liburu zientifiko eta teknikoetan askotan gertatzen diren tipografia-arazo bereziak edo idatzi beharreko zenbaki, formula, erreakzio, laburdura, ikur eta gainerakoen artean argi pixka bat egiteko, oso praktikoa da liburutxo hau:

– BEZOS LÓPEZ, Javier, *Tipografía y notaciones científicas*, Trea, 2008

Javier Bezosek, gainera, ortotipografia zientifikoari buruzko web-orri<sup>39</sup> bat ere badu, oso interesgarria eta informazio erabilgarritz bete.

Liburuen edizioarekin lotutako zoko-moko guztiak eta, bereziki, ortotipografia luze eta zabal lantzen duen liburu oso interesgarria da beste hau ere:

– Jorge de BUEN, *Manual de diseño editorial*, Trea, Gijón, 2007

Hiztegi espezializatuei dagokienez, asko daude gaztelaniaz, nahi adina jakintza-alorretta-koak. Baina guztien artean, bat aipatu nahi nuke, bikaina ingelesetik gaztelaniarako itzulpen orokorretarako nahiz zientifiko eta teknikoetarako:

– NAVARRO, Fernando, *Diccionario crítico de dudas inglés-español de medicina*, McGraw-Hill, 2. argitaraldia, 2005.

Izenburua irakurrita, espezialitate-hizkera jakin bati oso lotua dagoela pentsatuko du norbaitek, beharbada, medikuntza-kontuak bakarrik ukitzen dituela, alegia. Ez, bada. Medikuntzaz kanpo erabiltzen diren hainbat eta hainbat termino ere jasotzen ditu, eta gaztelaniako ordainaz gain, azalpen mamitsu eta egokiak ematen ditu beti. Hiztegi gisa bakarrik ez, entziklopedia modura ere erabiltzen dut nik maiz, gaztelaniara nahiz euskarara itzuli behar dudanean, argibide bila.

Adibide gisa, *peer review* azpisarreran (sarrera nagusia *peer* da) dioena aukeratu dut. Adibide «erreal» da, ingelesetik gaztelaniara itzulitako elkarrizketa bat zuzentzen ari nintzela egin nuen bilaketa batean oinarritua. Hauxe zioen zuzendu behar nuen testuak: «Siguiendo con este tema, ¿cómo ve usted el proceso de publicación de los artículos científicos? ¿Piensa que hay alternativas razonables y realizables al proceso de *peer review* o revisión previa?»

*Peer review* zehazki zer zen eta gaztelaniaz emateko argibide bila, Navarroren hiztegiara jo nuen:

*peer* [s.]

1 Semejante, camarada, compañero, socio, colega (además de ‘par’).

2 [Bibl.] En el contexto de las revistas científicas, y según lo comentado en → PEER REVIEW, en inglés suelen utilizar *peer* en el sentido más restringido de *peer reviewer* (revisor externo).

---

39. <http://www.tex-tipografia.com/>

*peer evaluation* → PEER REVIEW

*peer review* (también *refereeing* o *peer evaluation*). [Bibl.] Recomiendo evitar tanto el anglicismo «peer review», como el calco «revisión por pares», de uso habitual en el mundo de las publicaciones científicas; puede traducirse como ‘revisión científica externa’, ‘revisión externa por especialistas’ o ‘revisión externa por expertos’; • *peer-reviewed journal* (revista de revisores externos, revista con revisión científica externa), *peer reviewer* (revisor externo).

Azalpen egoki eta argia, ezta? Bada, horrelakoez beteta dago hiztegi hori. Medikuntza-gaien eta, oro har, gai zientifikoen itzulpenaz arduratzen den *Panace@*<sup>40</sup> aldizkari bikainaren zuzendari izan zen Fernando Navarro, eta aldizkari argitalpen-kontseiluko kide da gaur egun. Bide batez, merezi du orain arte argitaratu diren *Panace@* aldizkari zentzuzkoen zentzuzkoen ematea (Interneten kontsultatu daitezke denak). Perla eder ugari dago hor, besteak beste iaz zendu zen Iñaki Ugarteburu EHUko irakasleak espezialitate-terminoen itzulpenari eta mailegu lexikoei buruz idatzitakoak<sup>41</sup>, edo Martínez de Sousa anglizismo ortotipografikoez idatzitakoak<sup>42</sup>.

Azkenik, eduki trinkoa baina forma arinagoa duten hiruzpalau liburu aipatu nahi nituzke, interesgarri izateaz gain, irakurterrazak direlako:

- MILLÁN, José Antonio<sup>43</sup>, *Perdón, imposible* (*Guía para una puntuación más rica y consciente*), RBA, 2005.  
Gainera, edizioarekin, itzulpenarekin eta, oro har, liburuekin zerikusia duten gaiak ukitzen ditu Millánek bere web-orrian.
- GÓMEZ FONT, Alberto, *Donde dice... debiera decir* (*Manías lingüísticas de un barman corrector de estilo*), Trea, 2006.
- CASSANY, Daniel<sup>44</sup>, *La cuina de l'escriptura*, Empúries, 1993, 2002 (2. argitaraldia).  
Gaztelaniazko bertsioa: *La cocina de la escritura*, Anagrama, 1995.
- CASSANY, Daniel, *Esmolar l'eina* (*Guia de redacció per a professionals*), Empúries, 2007.  
Gaztelaniazko bertsioa: *Afilar el lapicero* (*Guía de redacción para profesionales*), Anagrama, 2007.

Eta, nola ez, Lázaro Carreter handiak Espainiako eta Hego Amerikako hainbat egunkaritan hizkuntzaren erabilerari buruz idatzitako artikulua jasotzen dituzten bi liburuak, irakurterraz bezain zorrotzak:

40. <http://medtrad.org/panacea.html>

41. Adibidez, [http://medtrad.org/panacea/IndiceGeneral/n3\\_Ugarteburu.pdf](http://medtrad.org/panacea/IndiceGeneral/n3_Ugarteburu.pdf) eta [http://medtrad.org/panacea/IndiceGeneral/n2\\_OrtografiaUgarteburu.pdf](http://medtrad.org/panacea/IndiceGeneral/n2_OrtografiaUgarteburu.pdf)

42. Adibidez, <http://medtrad.org/panacea/IndiceGeneral/n11-editorialsousa.pdf> eta [http://medtrad.org/panacea/IndiceGeneral/n16\\_tribuna\\_MartinezDeSousa.pdf](http://medtrad.org/panacea/IndiceGeneral/n16_tribuna_MartinezDeSousa.pdf)

43. <http://jamillan.com/librosybitios/>

44. [http://www.upf.edu/pdi/dtf/daniel\\_cassany/](http://www.upf.edu/pdi/dtf/daniel_cassany/)



- Fernando LÁZARO CARRETER, *El dardo en la palabra*, Galaxia Gutenberg-Círculo de lectores, 1997.
- Fernando LÁZARO CARRETER, *El nuevo dardo en la palabra*, Aguilar, 2003.

### **3. And last**

Honaino, bada, iazko *Gaztelania xede* ikastaroari buruzkoak. Aspaldi aho-zabalka hasia izango zara, ziur asko, irakurle. Gaurko bazkalondoak uste baino luzeago jo du, egia esan, eta ondo irabazia duzu siesta.

Aurten, beste gaztelania-ikastaro bat antolatuko du EIZIEk, *Gaztelania xede II*, azaroan berriz, iaz bezala. Iaz egindakotik ikasi, eta aurten ere gaztelaniaren zokoetan sartzen saiatuko gara Karlos Cid eta biok, batez ere euskaratik gaztelaniara itzultzen dugunean edo zuzenean gaztelaniaz idazten dugunean egiten ditugun okerrak azaleratzeko asmoz. Konponbideak ematen asmatzen ez badugu ere, ea galdera egokiak egiten asmatzen dugun, behinik behin.

### Lengua de llegada: castellano

Durante los días 27 y 28 de noviembre de 2009 tuvo lugar en la Facultad de Letras de la UPV, con sede en Vitoria, el seminario titulado *Gaztelania xede*, organizado por EIZIE. El objetivo de dicho seminario era dar una visión general de los problemas a los que deben hacer frente habitualmente los intérpretes, traductores y correctores de textos no literarios cuya lengua de destino es el castellano, a partir de originales en francés, inglés y euskera.

El artículo recoge algunos de los ejemplos prácticos analizados durante dicho seminario, y consta de dos partes. En la primera, repasa algunos de los errores más habituales de los textos en castellano, e indica lo que la Real Academia Española y otras fuentes e instituciones fiables dicen sobre ellos. Y en la segunda parte, comenta algunas referencias bibliográficas útiles para traductores y correctores.

### Spanish as a target language

On the 27th and 28th of November of 2009, the School of Arts of the UPV, with headquarters in Vitoria, held a seminar called *Gaztelania xede*, organised by EIZIE. The aim of this seminar was to provide a global view of the problems non-literary translators, interpreters and proof-readers, whose target language is Spanish, must usually come face to face with when translating from French, English and Basque.

The article gathers some practical examples analysed during the seminar in question, and has two parts. The first one goes over the most common errors of texts in Spanish, and indicates what the Spanish Academy and other sources and institutions say about the latter. The second part mentions bibliographic references useful for translators and proof-readers.

### L'espagnol pour cible

Les 27 et 28 novembre 2009 eut lieu à la faculté de lettres de l'UPV, à Vitoria, le séminaire intitulé *Gaztelania xede* (l'espagnol pour cible), organisé par EIZIE. L'objectif de ce séminaire était de présenter une vision générale des problèmes auxquels doivent se confronter habituellement les interprètes, traducteurs et correcteurs de textes non littéraires dont la langue cible est l'espagnol, à partir du français, de l'anglais et de l'euskera.

L'article, organisé en deux parties, présente quelques exemples pratiques analysés durant ce séminaire. La première partie reprend certaines des erreurs les plus courantes des textes en espagnol et indique ce que la Real Academia Española et d'autres sources et institutions fiables en disent. La seconde partie établit la liste de certaines références bibliographiques utiles pour les traducteurs et les correcteurs.